

## Iñauteak

Urtarrilako hilabetea akitu urren eta Otsailan sartzeraz goazi. San Anton eguna gan zen eta urtero bezala ohiturari yarraikiz, Meza Nagusia ospatu zen. Eguerdi aldean Balleko Etxeko aitzinean yendea bildu zen errifaren zozketa ikusi beharrez. Azkenengo lau urte hoketan bi bertsolari aritzen dire Balleko Etxeko kalerietatik kantatzen dutela. Aurten Lazkano eta Agirre apektiarrak ari izanak dire eta hoken bertsaldia guziz atsegin-garria izan da. Ondotik urteroko zozketa eta holaxe burutu ziren San Anton eguneko ospakizunak. Eguraldiak lagundu zuen, goiz guzian ateri eta aski giro ederra sasoin huntarako. Gero San Anton ondotik eguraldi bortitzak izan ditugu, orma haundiak egin ditu baina ez gaitezen arritu, hau neguaren zitua da.

Otsailan sarturik erranairuak holaxe dio:

«Otsaila bixilli baxalla». Ikusiko dugu hilabete ttipi hunek zer daka-

rran.

### Iñauteak

Iñauteak gañean ditugu eta ofizialki Otsailaren 13-an baina zenbait herrietan aitzinetzen dituzte eta holaxe Zubietara eta Iturengo Iñauteak ospatuko dira 29,30,31 eta Otsailaren 1 eta 2-an. Bortz egun beste.

Ekitaldien artean eta ohiturari yarraikiz astelen 31-ean Zubietako «zanpantzarra» etorriko dira Iturenera, lehenik Aurtitzera bixita eginik. Hauzo huntan Aurtitzekoak eta Zubietakoak bat eginik yonane dira Iturenera, bide guzian beren gare haundiak errepikatuz. Iturengo «yoaldunak» herriko bazterrean zain daude eta denak elkarturik Iturengo herrian sartzen dira. Hemen itzuli bat eginik «yoaldun» guziak herriko plazan bildurik, «Ameketako» bat egiten dute denak elkarrekin eta atsedena bat hartuz. Ondotik bertze yoaldi bat eginen dute eta berehala Zubietarrak

beren herrira itzuliko dira. Biharamonean, aurten Otsailaren 1-ean, Itundarrak joanen dira Zubietara bidean Aurtitzekoak ere elkartzen direla.

Denak batean eta «pulunpak» soñu bizian Zubietaraño. Hemen zubietar «yoaldunak» ittundarrin zain herriko sarreran egongo dira. Hemen denak elkarturik eta sekulako burrunbakin sartuko dira Zubietako karriketan eta Iturenen egin zuten bezala beren soñualdia eginen dute. Zubietan ere «Ameketako» eta atsedena harturik Itundarrak beren herrira itzuliko dira. Holaxe bi herri hoiek elkartasun zoragarrian ospatzen dituzte Iñauteak.

Sunbillan ere Iñauteak 28,29 eta 30-ean. Herri huntan ere sekulako Iñauteak egiten dituzte. Karrozak, Soñulariak, Mozorroak, Dantzariak. Herri guzia bat eginik eta elkartasun maitagarrian, Sunbillan ospatzen dituzte Iñauteak.

M. Izeta

## Arakil ibarran euskara zaintzen

Euskararen maitasuna zabaltzeko, Arakil ibar osorako bi asteke egitaraua edo programa eder bat antolatu dute; ekintzak erri ezberdinetan banatu dituzte. Ori dena Nafarroa'ko Gobernuaren laguntzarekin egin dute. Aurreneko ekintza Iriberrin izan da. Egun zoragarri onen berriak eman ditugu dagoneko egunkari ontan.

Azaroaren amairuan, Ihagar errian antzerkia zeukaten, «Zalaparta» izeneko «Txokolo» antzerki taldeak egiña. Azaroaren emeretzian itzaldia Izurdiaga delako errikan. Gaia: Arakil'go Toponimia. Izlaria, Mikel Belasko, izkuntza politikako arduraduna. Mendi, iturri, landa eta etxeen izenak aztertu zituen. Naiz erri aunitzetan gure izkuntza ez egin geiago, gure lurra euskaraz mintzatzen zaigu oraindik. Azaroaren ogeian aurren jaia Satrustegi errian. Antxen alaitzu, ibarreko aur euskaldunak bildu ziren. Guraso ta aur aunitzen artean euskaraz egiten zuten.

Egun berean, antzerkitxo bat zuten arratsian Etxarren delako errian; saioaren izena «Bazter utzitako Panpinaren Istoria», Iruña'ko antzerki talde txikiak egiña. Uraxe izan zen aurren lasaitzea.

Azaroaren ogeitaseian itzaldia, Etxeberri errian izan dute; gaia berri «Arakil'go folklorea». Joseba Ozkoidi jaunak, Ortzadar Euskal folklore taldekoak eman zuen. Errietako oituren aberastasunetaz jabetu ziren.

Azaroaren ogeitazazpian, Egia-rra'n euskal zinemaldia euki zuten; izena alakoxea «Oz'eko Aztia».

Erriak denetan zerbait egitea onuragarria izan zen. Erriak, ori aunitz eskertzen dute, bizitasuna ta



Pello Astiz eta ama. Euskara serbitzuko arduraduna.

izen ona ematen dietelako.

Bi asteke lan eder onekin, ekinaldiaren arduradunak arrakasta bizia lortu zuen. Pello Astiz zuzendaria pozik egon leike. Mutil gaztea dugu. Sakanako euskara serbitzuan lana egiten du. Lantokia ta leyatilla Arbizu'n dauka. Eginkizuna, Sakana zabalean euskara indarberritzea, Ziordia'tik asita Irurtzun'eraño. Nafarroa'ko zati eder bat egokitzen zaio. Pello Astiz euskaldun berria dugu. Euskara ikastaroetan ikasi du. Lau urte darmazki lan ortan. Len langillea zen. Euskara ondo ikasita, azterketa bat egin ondotik, lan berri au lortu zuan. Euskaraz, ongi ta errez egiten du, argia da. Ama euskalduna dauka, Araitz ibarrekoa.

Elkarriketa mamitsua euki nuen berarekin. Itzen mamia, giro baten ezaugarri da. Beretzat, Nafarroa'n izandako aldaketarik aundiena euskararentzat, 1986'garren urteko

eziketaren legea izan da. Orrexek aldatu ditu bazterrak.

Berak dionez, azkeneko urte auetan, eukarari buruz idatzitako libururik ederrena TXEPETX delakoa, Karrioren lana, deritzaio. Nunbait ortxen, Nafarroa'n, euskararen alde lana egiteko bidea arkitzen du.

Lau urte oietan berak egindako lanik onena aipatzen zidan; ikastolako aurren gurasoekin egin zuna. Nola jarraitu euskaraz aurrekin egiten erakatsi zien. Gurasoak erantzun ona eman zioten.

Zenbaterano aldaketa dakarren ikastolak Nafarroa'n ikusita, arrituta dabil. Bere errialdean euskaldunenak, Urdiain eta Arbizu arkitzen ditu. Pozik ere zebillen Olazti'ko giro berriarekin.

Auxek ditugu Nafarro berria sortuko duten gizonak. Eutsi ta ekin, izan ziren nere azken itzak.

Latzaga

## Berri ona

### Sinetsi

«Bazter guztietara zabaldu zen» (Mk.1,21-28)

Galilea-ko Kafarnaun-en aurkitzen gera. Inguru orretako bazterrak ondo miatu zituen Jesus-ek. Eta an atera zuen deabrua. Arriturik utzi zituen denak. Eta Aren izena erriz- erri zabaldu zen.

Sinesten dutenengan gertatzen dira mirariak. Sinisten al duzu? Gaurkoan burni-lanean ari den baten sinismen-otoitza gogoratuko dugu.

«Sinisten dut biotz berri taiteken pertsonengan, anitz dira erabat biotz berri direnak. Sinesten dut Elkartzen gaituanaren billa dabilzan gizon-emakumeengan. Sinisten dut iraganaren, orainaren eta geroaren izatea gainditu bear dela. Ez da posible biarkoa gaurkorik gabe egitea, ez da ere gaurkoa atzokorik gabe bizitzea.

Sinesten dut zuzena eta ona ez denaz, aldatuko da eta santua izango da. Sinesten dut ostropozo egitea ona dela zutitu eta berriro jarrai aal izateko. Sinesten dut legekerian bizitzea baiño ohea dela gau illunean arrastaka ibiltzea. Sinesten dut erriak antolatu eta eratzen duen orotan.

Sinesten dut bizitzak sortzen dituen zailtasun eta oztopoetan, ala ere bizitza maitagarria da eta ederra. Sinesten dut erraten dudana guzia ez dudala betetzen eta gauzatzen; saiatzen naiz, ordea, ala gerta dadin» Irakurle, saikaera ederra egunotan zuk sinesten duzuna jartzen eta idazten. Otoitza ere idatziz egin daiteke.

Artzalluz'tar Joxemari



1994'ko txapeldunak.

## Fernando Arretxe luzaidetarraren omenez

A nolako partidua egin dun Arretxe'k Mendizorrotza'n. Bera izen da egiazko txapelduna. Eta berari zor dio neurri aundian III Titiñ'ek gaur jantzi duan txapela. Badakit biar izparringilari edo periodista guztiak Titin goraipatuz agertuko zaizkigula. Titin! zan emen ere, Errioxa'tik etorrita Gazteiz'ko pelota-leku au ezin geiagoraino bete duten pelotazaleen oia. Titin!, Titin, Titin!

Baiñan bai auei eta bai aiei, galde bat egin nai nieke danei: Zer gertatuko zen gaur emen atzelariak aldatu ba'la? Berandu iritxiko zaizu nere idazlan au, baiñan, ni frontoiean bertan, partidua bukatuta bela ari nazaizu idazten. Errioxarrek darabilkiten zalapartaren erdian: oiua, karra-xiak, Errioxa'ko laukolore dun ikurriña baztar guztietan dantzan, eta ardo-zatoak eskuz esku, futbol-landetako oiturak ekarri dizkigute. Ez diet nik erreistatuko, baiña pelotaren giroa beste modu batekoa da: goxoagoa, legunagoam txukunagoa, dotoreagoa, eleganteagoa.

Bi partidu jokatu dire binakako txapelketa onen lenen lau bikoterik onenak zein dirn erabakitze-ko; eta bietan atzelariak (Zezeaga ta Arretxe) izen dire onenak, eta atzelariak (Elkoro ta Beloki) izen dira txarrenak ere. Lenengo partiduan, apika tanto bat galdu gabe era zoragarrian aritu den Zezeaga'ren aurrean bikainki, gero Titin bezain ongi, edo obeto, aritu da Unanue aňorgatarra. Oso gaizki jokatu dun Elkoro'ren aurretik, berriz, non jarri ere ez zekiela ibilli da Alustiza. Gutxitan geldituko zen Alustiza gaur bezala, 3 tanto besterik gabe.

Bigarren partiduan, gaizki ibilli zaigu Beloki. Uts asko egin du, -bost kontatu dizkiot nik-, eta txarrena dena, Titiñ'ek nai aña pelota utzi ditu bigarren kua-droaren aurrean, eta ortik, aidez jota, nork ez ditu tantoak errez egiten? Partiduaren asieran oso gaizki egon da Beloki. Bizkortu da erdialdera eta bazirudian

Arretxe'ren neurria iritxi ere iritxiko zela, baiña beera jausi da berriro azkeneko tantoetan.

Ez dut esan nai pelotari txarra denik. Bere 19 urterekin orrelako jokaldi latzetarako gazteegia dela esan nai dut. Ziur bait nago soñez eta indarrez geixeago mardultzen denean, lenen maillako pelotaria izain dela.

Balio aundiko bi momentu gertatu dire partiduan: Retegi ta Beloki, partidua azken aldean, bere etsaiengandik bi tantora jarri direnean, ainzuzen. Bi momentu oietatik aurrenekoan uts egin du Beloki'k. Eta bigarrenean Retegi'k. Orregatik, ez da Beloki'rena bakarrik partidua galdu izetearen errua. Retegi ere ez bait da gaur betiko Retegi izen: tanto polit batzuk egin ditu, baita oso pelota txarrak jaso ere, baiña indarrik gabe agertu da, ez du pelotarik gozatu, eskubiz aul ibilli da, ez du besteetan bezala pelotarik atzeratu, eta ez du, ezta, sakatzen asmatu. Ez zen, gaurko au, gure betiko Retegi. Itzuliko al da len-bait- len lengoa izatera berriro.

III Titiñ'ez mintzatu gera. Berrez zalla zuen partidua, partidu erreza biurtu dio Arretxe'k. Alare, esan dezagun asko aurreratu dula Errioxa'ko gazte onek. Ari da sakatzen ikasten, pelota zallak, beti bezala, errez eramaten ditu, eta len ez bezala ari da boteteko jokua ikasten ere. Au izengo ote dugu II Retegi'ren jarraitzea? Baditekela iruditzen zaku. Sortu bedi beintzat azkar Julian'en antzeko pelotari bikain bat.

Titin zenbateraino egokitu zakun ikusteko, au izengo litzake partidu bikaña: Unanue-Zezeaga (edo III Galartza), III Titin- Arretxe'ren aurka.

Arretxe'z ez dugu ezer geiago esango. Esan bait dugu bera izen dela, askoz, gaurko pelotaririk onena; bera izen dela gaur egiazko txapelduna.

Alare, Titin, Titin'ka jarraitzen dute errioxarrek. Ez diet nik erreixtatuko. Bejondeiela!

Latiegi'tar Bixente